

8

FUNTSEZKO JARDUERAK

DISEINU+PROTOTIPOA

Produktua salgai egoteko lehenengo pausua diseinua eta prototipoa aurkeztea da. Izan ere, gure finantziaketa lortzeko lehenengo egin beharko genukena da. Gure konpetentziatik bereiztea oso garrantzitsua denez, alderdi honi garrantzi handia eman beharko genioke.

DENDEKIN KONTAKTUA

Gure zaborontzia salgai egoteko, dendeekin aliantzak lortu behar ditugu. Izan ere, gure diru-sarrerak salmenta fisikoaren bitartez egingo dira. Proiektua aurrera eramateko lortuko genukeen dirua produkzioko kostuak babesteko adina eta pixka bat gehiago izan beharko litzateke, kostu guztiak ordaintzea lortzeko.

PUBLIZITATEA

Zakarrontziaren salmentak areagotzeko eta gure marka ezagutarazteko publizitatea oso garrantzitsua da. Izan ere, sortu berriko marka bat izango garenez, ezin gara gure aliantzen eskuetan egon. Hori dela eta iragarkiak egitea egokia izango litzateke, gure marka independizatzeko. Telebista bitartez publizitatu gaitezke, izan ere, gure xede-publiko nagusia familiarra edo etxebizitzak dira.